

I. ERANSKINA

LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK, HEZKUNTZA SAILAREN BITARTEZ, ETA **BEASAINGO UDALAK** SINATZEKO, UDAL HORREN TITULARTASUNEKO MUSIKA-IKASTEGIAK FINANTZATZEKO LAGUNTZA PUBLIKOAK EMATEKO DENA

Vitoria-Gasteiz, 2025ekoaren(a).

BILDU DIRA:

Batetik, María Begoña Pedrosa Lobato andrea, Hezkuntzako sailburua den aldetik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ordezkatzuz, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuaren 4. artikulua ematen dizkion eskumenak erabiliz.

Bestetik, **LEIRE ARTOLA UGALDE** andrea, **Beasaingo** Udaleko alkatea, udal horren ordezkari gisa (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aplikatuta), Toki Araubidearen arloan indarrean diren Legezko Xedapenen testu bateginak esleitutako eskumenak baliatuz (apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak onartutako testu bategina).

Alderdiek hitzarmen hau sinatzeko behar den gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, hori dela bide, hau

AZALTZEN DUTE:

Azken hamarkadetan, garrantzi handikoa izan da udal musika-ikastegien garapena –bereziki, musika-eskolena–, eta, hala, Euskadiko musika-irakaskuntzen garrantzizko erreferente bilakatu dira. Honetan datza ikastegi horien arrakastaren gakoa: nekez ordezkari daitezkeen tresnak dira, herritarren zerbitzuko zeharkako tresnak direlako, eta eragin handia dutelako kulturen eta gizartean, hainbestearino, non ezinbesteko zerbitzu publikotzat joa izateraino iritsi diren.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, aurreko hezkuntza-legearen – LOGSEren– ildotik, hezkuntza-administrazioei eskatzen die arautu ditzatela musika- eta dantza-ikasketak, zehazki balio akademikoa edo profesionala duten tituluak lortzera bideratuta ez daudenak, kontserbatorioez bestelako antolaketa eta egitura duten eskola espezifikoei emanak, adin-mugarik gabe.

Maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolenak, lege-esparrua eta gutxieneko antolamendu-azpiegitura eskaintzen die musika-eskolei.

Musika- eta dantza-eskolak finantzatzeko erreferentetza hartzen den Europako ereduak edo “Europako idealak” herenetan banatutako finantzaketa du oinarri: % 33 gobernu autonomoek finantzatzen dute, % 33 udalek eta % 33 ikasleen matrikulek. Izan ere, finantzaketa-eredu horren helburua da zerbitzuaren iraunkortasuna bermatzea eta eredu finantzatzeko erantzukidetasuna hartzea.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak (aurrerantzean, ETEL) zazpigarren xedapen iragankorrean dio autonomia-erkidegoko Administrazio Orokorrari dagokiola musika-irakaskuntzak, izan arautuak edo ez-arautuak, ematen dituzten ikastegien zerbitzuen estandarra definitzea, eta horren arabera dagokion herena finantzatzea, laguntza publikoak baliatuta, zeinak hitzarmen bidez ezarriko diren –udalen ordezkariak eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak izenpetuko dituzte hitzarmenok.

Hezkuntza Sailaren eta Eudel Euskal Udalerrien Elkartearen arteko partaidetzaren eta adostasunaren bidez zehaztu da zein den musika-ikastegietan eskaini beharreko musika-irakaskuntza arautu eta ez-arautuen estandarra eta nola baloratu behar diren ikastegi bakoitzari lotutako modulu ekonomikoak. Izan ere, zeregin horretan, Eudelek ordezkatu ditu direlako ikastegien toki-entitate titularrak.

Hezkuntzako sailburuaren 2025eko **irailaren 9**ko Aginduaren bidez (**2025eko irailaren 25(e)**ko EHAA), dei egin zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateei laguntza-eskabideak aurkez zitzaion, udal-titulartasuneko musika-eskolen eta musika-kontserbatorio profesionalen kostuak finantzatzen laguntzeko.

Beasaingo Udalak kultura eta musika hedatzeko jarduketan barruan, eskabide hori aurkeztu du, aipatutako aginduari jarraituz.

Hezkuntza Sailak, agindu horretan xedatutakoa oinarri hartuta, onartu du **Beasaingo** Udalak aurkeztutako eskabidea, eta, horrenbestez, hitzarmen hau sinatzen du, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Lege-esparrua.

Hitzarmen honetan aintzat hartzen diren zehaztapenak bat datoz Hezkuntzako sailburuaren 2025eko **irailaren 9** ko Aginduan ezarritako esparruarekin. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateentzako deialdia iragartzen da, musika-eskoletarako eta musika-kontserbatorio profesioletarako laguntza-eskabideak aurkez ditzaten.

Bigarrena.– Xedea.

Hitzarmen honen xedea da hauen arteko lankidetzaren formalizatzea: alde batetik, Hezkuntza Saila, eta, bestetik, hitzarmena sinatzen duen udala. Lankidetzaren helburua da laguntza publiko batzuk bideratzea, 2024-2025 ikasturtean honako hauek emandako zerbitzuen estandarren gastuak finantzatzeko: batetik, udal-titulartasuneko kontserbatorioak, musika-irakaskuntza arautu eta profesionalak eta, hala badagokio, LOEren 48.2 eta 48.1 artikuluetan xedatutako oinarritzko musika-irakaskuntzak ematen dituztenak, eta, bestetik, udal-titulartasuneko musika-eskolak, maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuak arautuak (Euskal Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolen dekretua, hain zuzen).

Hirugarrena.– Udal-titulartasuneko musika-ikastegien estandarra osatzen duten zerbitzuak.

1.– Udal-titulartasuneko musika-eskolek eman beharreko hezkuntza-zerbitzuak, Hezkuntza Sailak estandarizatu dituenak, honako hauek dira: balio akademiko eta profesionala duten tituluak lortzera bideratuta ez dauden musika-irakaskuntzak ematea, N1, N2, N3 eta N4 prestakuntza- eta gaitasun-mailetan.

2.– Udal-titulartasuneko kontserbatorioek eman beharreko hezkuntza-zerbitzuak, Hezkuntza Sailak estandarizatu dituenak, honako hauek dira: oinarritzko irakaskuntza arautuak eta, hala badagokio, musika-irakaskuntza profesionalak ematea. Irakaskuntza horiek LOEren 48.1 eta 48.2 artikuluetan daude jasota, hurrenez hurren.

Laugarrena.– Hezkuntza-zerbitzuen estandarrari lotutako modulu ekonomikoak.

1.– Honako hauek dira Hezkuntza Sailak ezarritako modulu ekonomikoak eta dagozkien zenbatekoak, kontserbatorioek eta musika-eskolek eskaini beharreko hezkuntza-zerbitzuen estandarrari dagokionez:

Modulua: irakasleen gastuak	
Modulua: ikasleko gehieneko gastua, 1M edo lehen harremana	142,04 €
Modulua: ikasleko gehieneko gastua, 2M edo hastapena	512,45 €
Modulua: ikasleko gehieneko gastua, 3M edo sendotzea	479,66 €
Modulua: ikasleko gehieneko gastua, 4M edo lehenetsitako jarduera	210,87 €
Modulua: ikasleko gehieneko gastua, arautua	1.597,42 €
Modulua: langileen eta zuzendaritza-taldearen gastuak	
Modulua: zuzendaritzaren gehieneko gastua	23.035,80 €
Modulua: ikasketa-burutzaren gehieneko gastua	6.675,93 €
Modulua: idazkaritzaren gehieneko gastua	6.675,93 €
Modulua: administrazioko eta zerbitzuetako langileen gastuak	
Modulua: administrazioko langileen gehieneko gastua	20.772,97 €
Modulua: mendeko langileen gehieneko gastua	18.175,80 €
Modulua: funtzionamendu-gastua	
Modulua: ikasleko gehieneko funtzionamendu-gastua	108 €
Modulua: ekipamendu-gastua	
Modulua: ikasleko gehieneko ekipamendu-gastua	16 €

2.– Goian zehaztutako modulu ekonomikoak gehieneko zenbateko ekonomikoak direla ulertzen da.

Bosgarrena.– Laguntzaren zenbateko indibidualizatua.

1.– Laguntzaren guztizko zenbatekoa zehazteko, aintzat hartuko dira udal-titulartasuneko kontserbatorioek eta musika-eskolek eskaini beharreko hezkuntza-zerbitzuen estandarrari dagozkion modulu ekonomikoak, hitzarmen honen laugarren klausulan finkatuak, bai eta zentroan matrikulatutako ikasleen datuak ere, hala jasota baitago Hezkuntzako sailburuaren 2025eko **irailaren 9ko** Aginduan (udal-titulartasuneko musika-ikastegientzako dirulaguntzak iragartzen ditu agindu horrek).

2.– Beharrezkoa izanez gero, aipatutako aginduan ezarritako aurrekontu erabilgarria aintzat hartuta, deialdirako kreditu erabilgarri guztia hainbanatuko da onuradunen artean.

3.– Edonola ere, emandako laguntzaren zenbatekoak ez du inola ere gaitutuko musika-ikastegiari esleitutako eta justifikatutako gastuaren herena. Aurreko apartatuko formularen kalkuluak zenbateko hori gaitutuz duen dirulaguntza bat emanez gero, dirulaguntza muga horretara egokituko da.

4.– Aurreko paragrafoetan xedatutakoari jarraikiz, hitzarmen hau sinatzen duen Udalarri emandako zenbateko indibidualizatua **239.953,67** euro da, guztira.

5.– Halaber, laguntza emateko kontuan izandako baldintzetan jazotako aldaketa orok, hura emateko ebazpena aldatzea ekarri ahal izango du, betiere entitate onuraduna izateko ezarritako baldintza minimoak –dirulaguntzei buruzko arauak ezarritakoak– errespetatzen badira.

Seigarrena.– Dirulaguntza ordaintzeko epeak.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ordainketa bakar batean emango du dirulaguntzaren zenbateko osoa, emandako dirulaguntza onartzea dakarren hitzarmen hau izenpetu ostean.

Zazpigarrena.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30 artikuluekin bat etorrita, diruz lagundu daitezke musika-ikastegiei 2024-2025 ikasturtean dituzten langile-gastuak eta ekipamendu- eta funtzionamendu-gastuak, baldin eta musika irakastearekin zuzenean lotura badute. Zehazki, jarraian adierazten diren gastuak lagundu ahal izango dira diruz:

1.– Langile-kostuak.

- Langile-gastuak honela zehaztuko dira: kostu gordina, gizarte-segurantzak, eta beste (beste aseguru batzuk).

- Beste organismo batzuetan ere ari diren irakasleak ez diren langileen kostuak proportzioan kalkulatu dira, musika-eskoletan duten dedikazioa soilik kontuan hartuz.

- Zuzendaritza-lanen gastuak irakasleak ez diren langileen gastutzat hartuko dira.

2.– Funtzionamendu-gastuak honako hauek izango dira:

- Azpiegiturak eta tresna teknologikoak mantentzeko, konpontzeko eta kontserbatzeko gastuak.

- Garbiketa-gastuak.

- Zerbitzuak: elektrizitatea, ura, gasa.

- Aholkularitza-gastuak, zerbitzu juridikoenak.

- Eskolaren asegurua.

- Ezohiko jardueren bidaia-gastuak: joan-etorriak, mantenua, dietak.

- Marketin- eta publizitate-gastuak.

- Ustekabeko gastuak: konponketak, istripuak.

- Langileen kontratazioa kudeatzeari lotutako gastuak (azpikontratak edo kudeaketa-gastuak) funtzionamendu-gastutzat hartuko dira, eta ez langile-gastutzat.

- Irakasleen prestakuntzaren gastuak funtzionamendu-gastutzat hartuko dira.

- Musika eskolak sortu bai baina bere gain hartzen ez dituen kostuak beste entitate batzuek diruz lagundutako gastutzat hartuko dira, eta beste laguntza batzuen multzoan sartu beharko dira.

- Musika-eskolak beste entitate batzuekin partekatzen baditu instalazioak, instalazioen erabileraren proportzioan kalkulatu dira gastuak (guztizkoaren %).

3.– Ekipamendu-gastuak honako hauek izango dira:

- Bulegoko materiala. Material suntsikorra eta suntsiezina.

- Altxariak.

- Erabileratik eta zaintzatik eratorritako tresnak eta materialak.
- Material didaktikoa: inprimatua, ikus-entzunezkoa eta multimedia.

Zortzigarrena.– Alderdien betebeharrak eta konpromisoak.

Hitzarmen honen xedea bete eta bertan adostutakoa gauzatzeko, berau sinatu duten aldeek honako betebeharrak eta konpromisoak hartzen dituzte:

1.– EAEko Administrazio Orokorrek, Hezkuntza Sailaren bitartez:

– Hitzarmen honen bosgarren klausulan ezarritako zenbateko ematea toki-entitate sinatzaileari, bere titulartasuneko musika-eskolaren edo kontserbatorio profesionalaren 2024-2025 ikasturteko kostuak finantzatzeko laguntza gisa.

– Toki-administrazioek eskainitako musika-irakaskuntzen finantzaketa finkatzen jarraitzea, ETElen zazpigarren xedapen iragankorrean xedatutakora hurbil dadin.

2.– Sinatzen duen toki-entitateak, kontserbatorio edo musika-eskolaren titular gisa:

– Hitzarmen honen hirugarren klausulan adierazitako irakaskuntzak emateko baimena duen eta 2024-2025 ikasturtean irakaskuntza horiek eman dituen kontserbatorio edo musika-eskola baten titularra izatea.

– Jasotako laguntza zertarako eman den, horretarako erabiltzea, bai eta hitzarmen honetako zazpigarren klausulan adierazitako gastuak ordaintzeko ere.

– Bermatzea bere titulartasuneko musika-irakaskuntzako ikastegiak une oro betetzen dituela irakaskuntza bakoitzari aplikagarria zaion araudian ezarrita dauden betekizunak, funtzionamenduari, irakasleen titulazioari, instalazioei eta ekipamenduei dagokienez eta kontratatutako irakasleei aplikatu beharreko lan-erregimenari dagokienez.

– Irakaskuntzen herena estaltzeko moduko matrikulazio-prezio publikoak ezartzea, musika-eskolak finantzatzeko Europako idealari jarraikiz.

– Une oro bermatzea hezkuntza-proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko behar beste diru dagoela, alde batera utzita Hezkuntza Sailaren laguntzen eta dirulaguntzen bidez lor daitezkeenak.

– Jarraipen Batzorde Teknikoari ematea esleitura dauzkan funtzioak betetzeko egokitzat jotzen duen dokumentazio osagarri guztia.

– Hedatzeko edozein bitartekotan jakinaraztea, logotipo ofizialak jarritz, diruz lagundutako jarduerak Hezkuntza Sailaren laguntza jaso duela, eta Eusko Jaurlaritzako Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari dei egitea diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia duten ekitaldi publikoetara joan dadin.

Bederatzigarrena.– Jarraipen Batzorde Teknikoa.

1.– Hitzarmen honetan adostutakoa kudeatzeko, jarraitzeko, zaintzeko eta gauzatzen dela kontrolatzeko, jarraipen-batzorde tekniko bat osatuko da, honako hauek osatua:

– Hezkuntza Sailburuordetzako Ikastetxe eta Plangintzako zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona; batzordeburua izango da.

– Hezkuntzako ikuskari bat, Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskari nagusiak izendatuko duena.

– Hezkuntza Sailburuordetzako Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari-lanetan. Ahotso izango du, baina botorik ez.

– Eudel Euskadiko Udalen Elkarteko ordezkari bat.

Jarraipen Batzorde Teknikoaren funtzionamendua bat etorriko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18. artikulura bitartean ezarritakoarekin.

2.– Honako eginkizun hauek izango ditu Jarraipen Batzordea Teknikoak:

- Hitzarmen honen klausulen garapena eta egikaritze egokia kudeatzea, eta klausula horien betetze-maila gainbegiratu, kontrolatu eta egiaztatzea.

- Aurkezten diren derrigorrezko agiriak aztertu eta ebaluatzea, hitzarmen honetan adierazitakoaren arabera. Ildo horretan, aukera izango du beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarria eskatzeko, horretarako ezarritako epean eta moduan.

- Hitzarmen hau betetzerakoan zein interpretatzerakoan planteatu daitezkeen problemak ebaztea. Ezinezkoa bazaio, administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenari dagokio arazook ebaztea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraikiz.

- Proposamenak egitea egokitzat jotzen dituen hobekuntzak eta aldaketak egin daitezen hitzarmenean.

3.– Dirulaguntzaren onuradun den kontserbatorioko edo musika-eskolako titularra, entitate laguntzaileak eta dirulaguntzaren xedearekin edo justifikazioarekin zerikusia duten hirugarrenak derrigorrez aritu beharko dira batzordearekin lankidetzan, eta batzordearen kontrol-zereginen jardunean eskatzen zaizkien agiri guztiak aurkeztu beharko dituzte, ezarritako moduan eta epean.

Betebehar horri uko egiten bazaio, eragozpenak eta aitzakiak jarri direla edo hari aurka egin edo uko egin zaiola joko da, hala ezarrita baitago Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37 artikuluan. Horretaz gain, dagozkion zehapenak ere jar daitezke, hala badagokio.

4.– Jarraipen Batzorde Teknikoak berak erabaki ahal izango du aldaketa teknikoak egitea, hitzarmena funtsean aldatzen ez badute.

5.– Jarraipen Batzorde Teknikoak bi ohiko bilera egingo ditu urtean, eta bat etorriko dira igorpen-epekin. Hala ere, ezohiko bilerak ere egin ahal izango ditu, batzordeko kideetako edozeinek hala eskatuta. Bilerak bitarteko elektronikoen bidez egin ahal izango dira.

Hamargarrena.– Betebeharrak ez betetzea eta itzulketa-prozedura.

Toki-entitate sinatzaileak jasotako diru-kopurua itzuli beharko du, baita aplika dakizkiokeen legezko interesak ere, baldin eta dirulaguntza eskatu eta eman zen helbururako erabiltzen ez badu, dirulaguntza emateko arrazoa izan zen jardura egiten ez badu, dirulaguntza eskatzeko adierazitako xedeetarako erabili duela justifikatzen ez badu, edo, oro har, ez baditu betetzen 2025eko ...**irailaren 9ko** Aginduan xedatutako betebeharrak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan xedatutako betebeharrak edo hitzarmen honetan adierazitakoak. Horretarako, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. Eta 41. Artikuluetan ezarritako prozedura beteko da.

Bestalde, aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

Hamaikagarrena.– Hitzarmena azkentzeko arrazoiak.

Hitzarmen hau azkenduta geratuko da, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada.

Hamabigarrena.- Hitzarmenaren izaera juridikoa eta interpretazioa.

1.– Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta administrazio publikoen arteko lankidetzahitzarmenei aplikatu beharreko ordenamendu juridikoaren arabera interpretatu eta garatuko da; zehazki, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren 47. artikulutik 53. artikulura bitartean eta 140.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Administrazio publikoen kontratuen legeria aplikatzeko aukerari dagokionez, baztertuta dago, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6.1 artikulua arabera.

3.– Hitzarmen hau sinatzeak ez du esan nahi parte hartzen duten alderdiek beren eskumenei uko egin behar dietenik, ezta eskumen horiek aldatzen direnik ere; izan ere, alderdiek hitzarmen horren arabera hartzen dituzten betebeharrak eta konpromisoak dagozkien erantzukizunak baino ez dituzte beren gain hartzen.

Hamahirugarrena.– Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmena sinatzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta 2026ko apirilaren 1era arte egongo da indarrean.

Hamalagarrena.– Finantza-konpromisoak beteko direla bermatzeko klausula.

1.– ETELen 24.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, klausula bat gehitzen zaio lankidetzahitzarmen honi, bertan aurreikusitako finantza-konpromisoak beteko direla bermatzeko.

2.– Klausula horren arabera, baimena ematen zaio Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari sistema bat adostu dezan, egin gabeko finantza transferentziak atxikitzeko, baldin eta EAEko Administrazio Orokorrak hitzarmena sinatu duen toki-entitateari egin beharreko ordainketak ezarritako baldintzetan egiten ez badizkio aurreko aurrekontu-ekitaldian; hartara, sistema horren arabera, hurrengo aurrekontu ekitaldian egingo zaizkio ordainketak kaltetutako toki-entitateari. Transferentzia hori konpentsatu beharko da ordaintzeko betebeharra bete ez zen aurrekontu-ekitaldiaren ondorengo ondoko ekitaldiaren lehen hiru hilabeteetan.

Ados daudela adierazteko, alderdiek dokumentu honen bi alde izenpetzen dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

BEGOÑA	Fecha:
PEDROSA LOBATO	2026.01.09
30680524L	12:47:50 +01'00'

Beasaingo alkatea,
LEIRE ARTOLA UGALDE.

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

E.J. Dirulaguntzaren HITZARMENA

Digitalki sinatua / Firmado digitalmente por:



LEIRE ARTOLA UGALDE

Alkatea
La Alcaldesa

Data / Fecha: 2025/12/19 16:28:02



EKS | CSV: SIERd28f8d1b-78c4-4ece-b047-a727175bc2ef

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01910>